

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2848

EBAZPENA, 2026ko ekainaren 17koa, Ingurumen Administrazioako zuzendariarena, dekretu-proiektu honen entzunaldia eta jendaurrean jartzeko izapidea egitea erabakitzen duena: eraikuntza- eta eraispen-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzko eta ondoren erabiltzeko hondakintzat hartzeari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideei buruzko dekretu-proiektua.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren 2022ko apirilaren 7ko Aginduaren bidez, hasiera ematea erabaki zen Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza- eta eraispen-hondakinei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikulua arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren eta entzunaldiaren eta jendaurrean jartzeko izapideak egin aurretik, dekretu-proiektuek prozedura hasteko agindua eman zuen organoaren alde zureko onarpena izan beharko dute.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikuluan xedatutakoa betez, 2026ko ekainaren 11n Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuak agindua eman zuen dekretu-proiektu hau alde zuretik onartzeko: eraikuntza- eta eraispen-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzko eta ondoren erabiltzeko hondakintzat hartzeari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideei buruzko dekretu-proiektua.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak eragiten dieten xedapen orokorren kasuan, entzunaldiaren izapidea egin behar da, eta, xedapen orokorren izaerak hala eskatzen duenean, jendaurrean jartzeko izapidea ere egin behar da. Bestalde, artikuluko horren 4. apartatuak ezartzen du entzunaldia eta, hala badagokio, jendaurrean jartzeko izapidea arrazoizko epe batean egin behar direla, eta epe hori ezin izango dela hogeitaz egun baliodunetik beherakoa izan.

Azkenik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 7. artikuluko f) letran xedatzen duenez, saileko zuzendariei dagokie, besteak beste, beren jardun-arloetan arau-garapena proposatzea. Halaber, dekretu horren 18.2.d) artikuluko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari esleitzen dio hondakinak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak bete behar dituzten ingurumen-prozedurak izapidetzea eta ebatzea, bai eta hondakinak prebenitzeko eta balorizatzekeo jarduerak bultzatzea ere.

Ondorioz, eta adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Dekretu-proiektu honen entzunaldia eta jendaurrean jartzeko izapidea egitea: eraikuntza- eta eraispen-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzko eta ondoren erabiltzeko hondakintzat hartzeari noiz uzten dioten erabakitzeko irizpideei buruzko dekretu-proiektua. Izapide hori hogeitaz egun balioduneko epean egingo da, ebatzen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.— Ezagutaraztea, alegazioak aurkezteko eskubidea baliatzeko, eraikuntza- eta eraispen-obretako hondakinak eta materialak sortzeari eta kudeatzeari buruzko eta ondoren erabiltzeko hondakintzat hartzeari noiz uzten dioten erabakitzeke irizpideei buruzko dekretu-proiektuaren testua Eusko Jaurlaritzaren Iragarki Taula Elektronikokoan kontsultatu ahal izango dela esteka honen bidez: https://www.euskadi.eus/jendeaurreko_erakustaldia/aurre-kontsulta-eraikuntza-eta-eraispen-hondakinei-buruzko-dekretu-proiektuari-dagokiona/web01-tramite/eu/

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 17a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.